

## Zirkulua

arteko \*itunari dagokion jarrera da. Jainkoaren dohain nagusiñetakoa da: Bera zintzoa da bere hitza eta agintzariak beteitzeko. Era berean, zintzoa da, itunaren arabera, Jainkoaren aginduak betetzen dituen eta Harenganako leialtasuna gordetzen duena. Ik. Jainko-herrria.

2. Zuzentasuna; Justizia. Moralean orokorki norberaren eginbideak, Jainkoarekikoak eta \*lagun-hurkoarekikoak, hutsik gabe betetzen dituen. Ik. Justizia, 1.

## Zirkulua

Zirkulua edo \*esfera eguzkiaren sinbolar da batzutan. Laukiarekin batera dagoenean, berriz, betetasunaren eta batasunaren sinbolar da, laukia aniztasunaren eta erdizkakoaren sinbolar den bezala; bi horien kontratasuna askotan agertzen da Indian eta Tibet-en.

Txinan, berriz, Yang printzipioa zirkuluaren bidez irudikatzen dute; Yin, berriz, laukiaren bidez. Bien arteko dialektika, elkarreagina eta polartasuna, berriz, zirkulu batez adieraten dute, "ese" (s) baten antzeko diametroak bi zonatan (bata zuria, bestea beltza) banatzen duelarik. Tai ji (tai-ki) du izen diagrama horrek.

Ik. Daoismoa; Kosmosa.

## Zirkuntzisia

Ik. Erdainkuntza.

## Zirtatzea

Ik. Ihizadura.

## Zisma

Berezkuntza eta banantzea adierazten du zisma hitzak (grezierazko skhisma hitzetik dator). Horrela deritza kristau-hizkeran Elizaren osotasunetik parterren bat aldentzeari, harin batasuna hautsiz eta, beraz, haren aginte gorena ezagutu gabez.

Berez ez du zismak fedeko egiairik batere ukatzen, \*heresiaren aurrez aurre; baina gertatzez barnean darama heresia, \*Elizaren batasuna ukatzen eta berorren aginte gorena da facto ez ezagutzean.

Kristautasunaren historiako zismarik entzutetsuena, oraindik ere dirauena, Fozio \*patriarkarena izan zen IX. mendean, XI. mendean Zerulario patriarkak burutu zuena. Ondorioz, ospe handiko tradizioaren --askori, gainera, \*apostoluengandik datorkienaren-- jabe diren ekialdetar Eliza greziar-eslaviarrak Erromatik aldentu egin ziren. Bereziki mangarria gertatu zen horregatik zisma hori. Ik. Ekialdeko zisma.

XVI. mendeko bananketa protestantea, Elizaren batasuna hautsi zuena eta ondorioz hainbat Eliza protestante, Erromarekin aurkatua, sorterazi zuena, heresia izan zen zisma baino areago, zuzenean irakasbidezko arazoak bait zeuden tartean eta ez aginte gorenarenganako obedienciazaren, bi aldeak bereiztea nekeza baldin bada ere, lehen esan dugunez. Ik. Erreforma protestantea.

Erromatik aldentuz, Enrike (Henry) VIII.aren eskutik sortu zen Eliza anglikanoa ere zisma da funtsean, horrelako beste guztiak bezala irakasbidezko arazo eta guzti, hala ere: oraingo honetan, hain zuzen, Elizaren batasuna eta aita santuaren eskumena ukatzearekin batera, ezkontzaren izaerari buruzko irakatsi katolikoa ukatu zuen, eta, jakina denez, erregearen eta Aragoeko Katolinaren arteko ezkontza hausteko eta Ana Bolena-rekin ezkontzeko baliatu zen irakatsi berriaz.

Erljioaren alorrekoa baldin bada ere zisma hitza, bestelako alorretan ere erabili ohi da, eta duen esangura eta adieragatik, horrela deritza edozein gizataldetan, edonolako arazoirengatik, gertatu ohi den banantzea edo etena.

Ik. Elkartea; Elkartasuna; Elizaren batasuna.

Jesús Lezaun  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

## Zoolatria

Ik. Animalien gurtza.

## Zoria

1. Sin.: Aierua; Zantzua. Erljio-alorrean, aztiapen-sistemetakoa baterako (\*ornitomantziarako) zantzua izan da: hots, txorien eganera, etorkizuna eta gertakizunen bat igartzeko edo asmatzeko erabiltzen den zantzua edo seinalea. Hortik zabaldu egin da adiera, eta aztiatzeko edozein seinale izan daiteke, aieru edo zantzuaren sinonimo gisa. Zorilaria eta \*aztia sinonimoak dira.

2. Hortik, ondorioz, norbaiti edo zerbaiti dagokion zortea adierazten du: ona (zoriona) nahiz txarra (zoritxarra).

Ik. Aztiapena; Igar(tza)pena; Patua.

## Zorilaria

Ik. Aztia.

## Zoriona

Sin.: Doha(tsu)tasuna

Gizakiak bere baitan dituen joera on guztiek beren helburua eta betetasuna lor-